

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

348/2016 Foru Agindua, azaroaren 21koa, deialdia eta oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikarien klasea, nekazaritzako ingeniaria) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2016rako enplegu eskaintza, zeinean jasota baitaude dagozkien hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren azaroaren 18ko 337/2016 Foru Aginduaren bidez oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu den enplegu publikoaren eskaintza horren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua. I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak onartzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikarien klasea, nekazaritzako ingeniaria) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua. II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 21a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

I. ERANSKINA**OINARRI ESPEZIFIKOAK****ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, AZPIESKALATEKNIKOAK, GOI-MAILAKO
TEKNIKARIEN KLASEA, NEKAZARITZAKO INGENIARIA (kodea: 12816)****1. DEI EGITEN DEN PLAZAK**

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko goi-mailako teknikarien klaseko 3 plaza –nekazaritzako ingeniaria, A taldea, A1 azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

– 1 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.

– 2 plaza barne sustapeneko txanda orokorrean, derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, nekazaritzako ingeniari (goi-mailako ingeniari edo gradua gehi masterra) titulua eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubiak ordainduta eduki. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.

Beharrezkoa izango da, orobat, B motako gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA**3.1. Oposizio aldia**

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

3.1.1. Lehenengo ariketa:**a) Sistema irekia:**

Ariketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa hamar (10) puntu da. Horren barruan nahitaezko bi proba egin beharko dira:

– Lehenengo proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

– Bigarren proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, gutxieneko bost (5) puntuko azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxienerako bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziorako banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

b) Barne sustapenerako sistema:

Ariketa hau proba bakarra izango da, eta bat etorriko da sistema irekiko bigarren proba izenerakoarekin.

Sartzeko sistema honetara lehiatzen direnen gehieneko puntuazioa, guztira, hamar (10) puntu izango da, eta gainditzeko irizpideak a) idatz zatian ezarritako berberak izango dira.

3.1.2. Bigarren ariketa

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa hau egitean izangaiek bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik, erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.2. Euskara proba

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da izangaiak hautatzen duen 1., 2., 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.

Dauden lau hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatuta daukatenez edo balio bereko titulu edo ziurtagirietako bat daukatenez euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Euskara Zerbitzua - Funtzio Publikoko Zuzendaritza - Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneraren eta Foru Administrazioaren Saila. Probintzia plaza, 14-5.a 01001. Gasteiz.

Hizkuntza eskakizunetakoren bat egiaztatzea hautaketa prozesuaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainean baloratuko da, ondoko era honetan:

- 1. HE: 1,63 puntu.
- 2. HE: 2,03 puntu.
- 3. HE: 3,58 puntu.
- 4. HE: 3,98 puntu.

3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia

a) Sistema irekia:

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,05 punturekin edozein herri administrazioetan A1 taldeko A1 (A) azpitaldeko lanpostu edo eginkizunetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta horretan jarduteko beharrezkoa bazen nekazaritzako ingeniari (goi-mailako ingeniari-tza edo gradua gehi masterra) titulua edukitzea, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioetako aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

b) Barne sustapeneko sistema:

Lan esperientzia gehienez ere sei (6) puntutaraino baloratuko da, 0,05 punturekin edozein herri administrazioetan A2 (B) azpitaldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, eta 0,10 punturekin edozein herri administrazioetan A1 (A) azpitaldeko eskaletan lan egindako hilabete oso bakoitzeko. Bakar-bakarrik konputatuko da Arabako Foru Aldundiak hirurtekoen ondorioetarako aitortutako antzinatasuna.

3.3.2. Informatika ezagutza

Gehienez ere 0,50 puntutaraino IT Txartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelania)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskara)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-
goenak.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari ofizioz eskatuko dio izangaiek lortu dituzten
egiaztapenak ziurtatzeko, oinarri orokorretan ezarritako epearen barruan.

3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan
ezarritakoarekin bat etorritz.

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

1. GAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).

2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).

3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak:
Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen
Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.

4. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Eus-
kal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriko aginteak (24-39 artikulua).

5. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). III. titulua: ogasuna eta ondarea (40-45
artikulua).

6. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I).
1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa
(1-14 artikulua).

7. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II).
1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa
(15-33 artikulua).

8. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administra-
zioa (III). 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu,
funtzionamendu eta araubide juridikoarena (3, 4, 17, 18, 38 eta 39 artikulua). 4/2000 Foru Araua,
otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko, bere erakunde autonomoetako eta foru sozietate
publikoetako goi kargudunen araubidea arautzen duena (1-6 artikulua).

9. gaia. Enplegu Publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen
duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak
(8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen egin-
beharrak. Jokaera kodea (52-54 artikulua).

10. gaia. Enplegu Publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa,
onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua.
Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55-68 artikulua).

11. gaia. Enplegu Publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa,
onartzen duena enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bateratua. Ad-
ministrazio egoerak (85-92 artikulua). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. Hizkuntza
normalizazioa (97-99 artikulua).

12. gaia. Administrazioa Prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena. Jarduera arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).

13. gaia. Administrazioa Prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).

14. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (I). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Xedea eta aplikazio eremua (1-4 artikulua). Kontratu motak (5-11 artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (18-21 artikulua).

15. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (II). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxienezko edukia (25-26 artikulua). Baliogabetasun araubidea (31-36 artikulua).

16. gaia. Datuen Babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuak babesteari buruzko printzipioak (4-12 artikulua). Pertsonen eskubideak (13-19 artikulua).

17. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onaren. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea (17-22 artikulua).

18. gaia. Berdintasun Politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa: 3-22 artikulua). EAEko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa: 18-22 artikulua).

2. GAI ESPEZIFIKOAK

19. gaia. Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) 2014-2020 Erreforma. Printzipio orokorrak eta aplikazioa Espainian.

20. gaia. NPE. Zuzeneko Ordainketak Nekazaritza eta Abeltzaintza (I). Oinarrizko ordainketa araubidea. Nekazari txikien araubide erraztua. Nekazari gazteentzako laguntzak.

21. gaia. NPE. Zuzeneko Ordainketak Nekazaritza eta Abeltzaintza (II). Oinarrizko ordainketa eskubideen esleipena eta kudeaketa. Oinarrizko ordainketa eskubideen lagapenak. Erreserba nazionala.

22. gaia. NPE. Zuzeneko Ordainketak Nekazaritza eta Abeltzaintza (III). Klimarako eta ingurumenerako nekazaritza jardunbide onuragarriak aplikatzen dituzten nekazarietzako ordainketa.

23. gaia. NPE. Zuzeneko Ordainketak Nekazaritza eta Abeltzaintza (IV). Zuzeneko laguntza elkartuak azalerako nekazaritza laguntzetan. Aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan.

24. gaia. NPE. Zuzeneko Ordainketak Nekazaritza eta Abeltzaintza (V). Zuzeneko laguntza elkartuak abeltzaintza sektoreetan. Aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan.

25. gaia. NPE. Zuzeneko Ordainketak Nekazaritza eta Abeltzaintza (VI). Nekazari aktiboa. Nekazaritza jarduera. Aplikazioa Euskal Autonomia Erkidegoan.

26. gaia. NPE. Zuzeneko Ordainketak Nekazaritza eta Abeltzaintza (VII). Epeak, betekizunak eta kontrolak zuzeneko laguntzetan. Iruzuraren prebentzioa. Zehapen araubidea.

27. gaia. Nekazaritza lurzatien informazio geografikoko sistema (SIGPAC). Egoera Euskal Autonomia Erkidegoan.

28. gaia. Zuzeneko laguntzen eta laguntza kofinantzatuen baldintzak. Araudia eta aplikazioa.

29. gaia. NPE. Zuzeneko ordainketak. Euskal Autonomia Erkidegoko, Espainiako eta Europar Batasuneko erakunde ordaintzaileak. Laguntzen finantza kontrola.

30. gaia. Landare osasuna. Europako eta Espainiako araudia. Berrogeialdiko gaixotasunak. Intzidentzia Arabako Lurralde Historikoan. Pasaporte fitosanitarioa. Barazki eta barazki-produktu ekoizleen, merkatarien eta inportatzaileen erregistro ofiziala. Ikuskatze fitosanitarioak.

31. gaia. Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria. Produktu fitosanitarioen erregistroa. Europako eta Espainiako araudia. Izurri eta gaixotasunen kudeaketa integratua. Ustiaketa koadernoak. Produktu fitosanitarioak saldu, maneiatu eta biltegitratzea. Defentsa fitosanitariorako baliabide ekoizle eta maneiatzaileen erregistro ofiziala (ROPO). Nekazaritzako makinaren erregistro ofiziala (ROMA)

32. gaia. Higienea nekazaritza ekoizpen primarioan eta fitosanitarioen erabileran. Europako eta Espainiako Araudia. Higiene praktika onak nekazaritza ekoizpenean. Nekazaritza ekoizpenaren erregistro orokorra (REGEPA) Egitura, inskripzioa. Nekazaritza ekoizpen primarioaren higienearen eta fitosanitarioen erabileraren kontrol ofizialerako programa.

33. gaia. Landa bideak. Sailkapena. Sare bat diseinatzeko irizpide orokorrak. Zirkulazioa. Eguneko batez besteko intentsitatea (IMD). Kargak ardatz bakoitzeko. Bide baten elementu geometrikoak. Trazadura. Luzetarako profila. Zeharkako profila. Sestrak. Bihurguneak.

34. gaia. Geotekniako oinarritzko elementuak. Granulometria. Ardatzak. Plastikotasuna. Barne marruskadura. Harearen kidekoak. Dentsitateak. Proktor normala. Proktor aldatua. CBR saiakuntza. Los Angeles saiakuntza. Karga xaflekiko saiakuntza.

35. gaia. Zabalgunea eta bidearen gainegitura. Definizioa. Lubetak. Lubakiak. Ezpondak. Zabalguneen hobekuntza. Trinkotzea. Sendotzea. Lurrak egonkortzea. Metodoak. Bide zoruak: motak. Azpioinarria. Oinarria. Errodadura geruza. Neurrien kalkulua: metodoak.

36. gaia. Hormigoiak: motak. Konpresioarekiko erresistentzia bereizgarria. Trakzioarekiko erresistentzia bereizgarria. Erresistentzia saiakuntzak. Hormigoia armatua. Armaduren ahalmen mekanikoa. Baliokidetasunak.

37. gaia. Fabrika obrak. Drainatze obrak luzetara eta zeharka. Babesa. Hormak. Harri lubetak. Errekak gurutzatzeko obrak. Sekzioen kalkulua. Arro hidraulikoa. Emari espezifikokoak. Birgertatzealdiak. Abiadura maximoak: zurrumbiloak. Formulak erabilera.

38. gaia. Bideen proiektua eta bideak egitea. Eduki behar dituen agiriak. Memoria. Baldintza tekniko orokorren agiria. Baldintza tekniko berezien agiria. Planoak. Inbertsioaren aurrekontua. Neurketak. Prezioen taula. Kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua. Obraren plana. Proiektuaren zuzendaritza. Gauzatzearen kontratazioa. Administrazio klausula berezien agiria. Kontratistaren sailkapena. Obren zuzendaritza, zaintza eta kontrola.

39. gaia. Segurtasuna eta osasuna. Indarrean dagoen legeria. Segurtasunari eta osasunari buruzko xedapen espezifikokoak proiektuaren fasean eta obrak egiteko fasean. Segurtasun eta osasun azterlana eta oinarritzko segurtasun eta osasun azterlana. Segurtasun eta osasun plana. Segurtasun eta osasun arloko koordinatzailea. Eskumenak eta erantzukizunak.

40. gaia. Lurzatien baterakuntza. Helburuak. Prozedura arrunta izapidetzea. Faseak. Ondasun eta eskubideen ikerketa. Lurren sailkapena. Herri lur, jabari publikoko eremu, mendi publiko eta abelbideen tratamendua.

41. gaia. Baterakuntzaren oinarrien fasea. Inkestak. Agiriak. Kartografia. Berrantolaketaren fasea. Baterakuntza proiektua eta erabakia. Kenketak. Agiriak. Jabe ezezaguneko finkak. Lur soberakinak.

42. gaia. Baterakuntza gauzatzea. Zuinketa. Finka berrien jabetza hartzea. Berrantolaketa akta. Tituluak. Izapidetzea. Baterakuntzaren ondorioak. Dekretuarenak. Erabakiarenak. Jabetza bateratuaren araubidea. Gutxieneko laborantza unitateak. Araudi berekia.

43. gaia. Ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzko legeria. Europako zuzentarauak, legeria nazionala eta Euskal Autonomia Erkidegokoa.

44. gaia. Laguntzak Arabako nekazaritza sektoreko ustiategietako inbertsioetarako. Laguntzak Arabako nekazaritza sektoreko nekazari gazteek enpresak sortzeko (1. instalaziorako laguntzak).

45. gaia. Laguntzak landa bideetako eta nekazaritzako beste azpiegitura batzuetako inbertsioetarako. Laguntzak baliabide hidrikoak kudeatzeko inbertsioetarako.

46. gaia. Abelbideak. Xedea, definizioa, motak. Arabako Foru Aldundiaren ahalak. Trazadurak, okupazioak, aldaketak, erabilera bateragarriak eta osagarriak. Erantzukizun penalak. Preskripzioak.

47. gaia. De minimis laguntzak: dirulaguntzak, metatzea eta kontrola. Europar Batasunaren zuzentarauak nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko estatu laguntzen gainean.

48. gaia. Ura eta ureztatzea. Ur-lurzoru-landare harremanak. Behar hidrikoak. Ureztatze teknika nagusiak.

49. gaia. Ura eta ureztatzea. Ureztatze instalazioak, instalazio elementuak eta kalkulua. Metatze azpiegiturak (presa, putzu eta biltegiak). Presio hodiak eta obretako segurtasuna eta osasuna. Ureztatzearen ingurumen alderdiak.

50. gaia. Ura eta ureztatzea. Baliabide hidrikoak. Erabilerak, kontsumoa eta urtarokotasuna. Ura aurrezte eta ureztatzearen eraginkortasuna. Uraren kostua. Hondakin urak ureztatze berrerabiltzea.

51. gaia. Ekoizpen ekologikoa. Esparru juridikoa. Planak, antolamendua. Produkzio sistemen ezaugarriak. Kontrola eta ziurtatzea.

52. gaia. Landa bideen erregistroa. Aurretiko jardunak. Zaintza. Lege arauak Arabako Lurralde Historikoan. Zehapen prozedura. Lege arauak. Titulartasuna.

53. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren eta basogintzaren arloko lurralde plana. Xedea, koordinazioa arloko lurralde planekin, jarraibide orokorrak, lurren erabilerak eta jarduerak, antolamendu mailak, baldintzak.

54. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamendurako jarraibideak. Antolamendu tresnak, eginkizunak, zehaztapenak, agiriak, prozedurak. Lurralde plan partzialak, arloko lurralde planak, jardun publikoak.

55. gaia. Plangintza hidrológikoa. Estatuko uren Legea. Euskal Autonomia Erkidegoko uren legea. Ebro arroko 2016-2021 plan hidrológikoa. Uraren esparruko zuzentaraua.

56. gaia. Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren neurriak. Beharrak. Estrategia. Ebaluazioa. Finantzaketa. Adierazleak. 4.1, 4.3, 6.1, 10, 11 eta 13 azpineurriak.

57. gaia. Nekazaritzako ingurumen laguntzak eta klima. Laguntzak nekazaritza ekologikoari. Xedea. Betekizunak. Baldintzak. Konpromisoak. Kontrolak. Murrizketak. Zehapenak. Laguntzak.

58. gaia. Nekazaritza ustiategientzako laguntzak muga naturalak eta Arabako Lurralde Historikoaren berezko beste muga batzuk dituzten zonetarako. Xedea. Betekizunak. Kontrolak. Murrizketak. Zehapenak. Laguntzak.

59. gaia. Aholkularitza nekazaritza ustiatuei. Aholkularitza entitateak. Zerbitzua ematen duten entitateen betekizunak. Aitortza. Eginbeharrak. Erregistroa. Laguntzak. Onuradunak. Laguntzak baloratzeko irizpideak.

60. gaia. Arabako urteko laboreak. Labore motak eta haien garrantzia. Kalitate bereizgarriak eta markak, haietan sartutako laboreak. Ekoizpen integratua.

61. gaia. Ingurumen eraginaren azterlanak azpiegitura proiektuan. Beharra eta edukia. Ingurumen eragina zuzentzeko neurriak. Ingurumen zaintzako plana. Izapidetzea.

62. gaia. Balorazioa urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, zeinak onartzen baitu lurzoruaren eta hiri birgaitzearen legearen testu bateratua, eta lurzoru legearen balorazio arautegian, urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren bidez onartuan. Lurzoruaren oinarriko egoerak. Lege testu horietan ezarritako balorazio araubidearen esparrua. Higiezinak baloratzeko irizpide orokorrak.

63. gaia. Balorazioa urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, zeinak onartzen baitu lurzoruaren eta hiri birgaitzearen legearen testu bateratua, eta lurzoru legearen balorazio arautegian, urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren bidez onartuan. Eraikinen balorazioa. Landa egoerako lurzoruaren balorazioa.

64. gaia. Mahastizaintza eta ardogintzako OCM. Mahasti ahalmenaren erregulazioari buruzko araudia: erauzteak eta birlandatzeak. Birlandatzeko eskubide eta baimenen kudeaketa. Mahasti azalera finkatzea.

65. gaia. Mahastizaintza eta ardogintzako OCM. Mahasti ahalmenaren erregulazioari buruzko araudia: landaketa berriak emateko araubidea.

66. gaia. Mahastien erregistroa. SIGPACaren aplikazioa mahasti esparruaren definizioan eta tratamenduan.

67. gaia. Mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko laguntzen araubidea. Xedea eta aplikazio eremua. Planak. Gauzatzeko epeak. Laguntzen motak eta zenbatekoak. Lehentasun irizpideak.

68. gaia. Mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko laguntzen kudeaketa eta kontrola. Ebazpena eta ordainketa. Aurrerakinak. Onuradunen eginbeharrak. Baldintzen aldaketak, ez betetzeak eta uzteak. Bermeen liberalizazioa. Kontrol araubidea.

69. gaia. Arabako mahasti ekosistemak. Ezaugarri fisiko, klimatiko, ekonomiko eta sozialak.

70. gaia. Ardogintzarako mahats barietateak Araban. Horien banaketa ekoizpen zona desberdinetan.

71. gaia. Mahastiaren laborantza. Usadiozko lanak eta eragiketak. Ezartzea, inausketa, ongarritzea, gidatzeko erak, berdeko eragiketak, tratamenduak, mahats bilketa. Aplikazioa Arabako mahastizaintzan.

72. gaia. Mahastiaren fisiologia.

73. gaia. Mahastiaren izurriak: kalte gehien egiten duten animalia parasitoak eta haiek borrokatzeko metodoak Arabako mahastizaintza zonetan.

74. gaia. Mahatsondoaren gaitz kriptogamikoak. Deskribapena, intzidentzia eta borrokatzeko metodoak.

75. gaia. Arabako Errioxako lurzoruen ezaugarri analitikoak eta mahastian duten eragina. Lurzoruen analisia mahastian eta horren aplikazioa ezartzean, ongarritzean eta lantzean.

76. gaia. Olibondo sektorea Arabako Errioxan. Banaketa geografikoa, laborantza metodoak, barietateak, alderdi ekonomikoak.

77. gaia. Mahatsondoa. Araban dauden mahatsondoen ezaugarri botaniko, fisiologiko eta anelografikoak.

78. gaia. Usadiozko praktikak mahatsondoaren garapenean. Kalitatean duten eragina.

79. gaia. Txertakak mahastizaintzan. Jatorria eta ezaugarriak. Ingurunera eta ardogintzarako mahasti desberdinetara egokitzea. Haien erabilera Araban.

80. gaia. Mahastiaren eta ardoaren arautzea alderdi hauetan: aplikazio eremua, ardoen jatorriaren eta kalitatearen babes, erregistroak eta zehapenak eta zehapenen araubidea.

81. gaia. Mahastizaintza eta ardogintzako merkatuaren antolamendua eta kontrola: mahastizaintza eta ardogintzako eragileen nahitazeko aitortzei buruzko arautzea.

82. gaia. Arabako mahastiak sartuta dauden jatorri deiturak eta arautzen dituzten arautegiak.

83. gaia. Mahatsa heltzeko prozesua eta ardogintza. Ohiko metodoak Arabako mahasti zonetan.

84. gaia. Behi, ardi-ahuntz eta zaldi azienden identifikazioa eta erregistro ofizialak.

85. gaia. Animalien ongizatea abeltzaintza ustiattegietan.

86. gaia. Higiene, babes eta biosegurtasun neurriak pertsonak eta ibilgailuak abeltzaintza ustiattegietara sartzean.

87. gaia. Nekazaritza ustiatzarien erregistroa. Xedea eta izaera. Nekazaritzako ustiatzari motak. Nahitaz inskribatu beharra. Inskriba daitezkeen datuak. Inskripzioaren prozedura eta praktika. Nekazaritzako lehentasunezko ustiatzari. Kalifikazioa, kalifikazioaren iraupena. Betekizunak. Ustiatzariaren parametroak lehentasunezko kalkulurako

88. gaia. Dirulaguntza kontzeptua. Dirulaguntzen printzipio orokorrak. Dirulaguntzak emateko betekizunak. Onuradunak. Dirulaguntzak emateko prozedurak. Oinarri arauak. Lehia bidez emateko prozedura. Zuzenean emateko prozedura. Dirulaguntzak justifikatzea. Diruz lagundu daitezkeen gastuak. Justifikatzeko modalitateak. Justifikazio kontuen motak eta haien edukia. Moduluak.

89. gaia. Herri administrazioaren hitzarmenak. Definizioa eta hitzarmen motak. Hitzarmenen balioaren eta eraginkortasunaren betekizunak. Hitzarmenen edukia. Arabako Foru Aldundiaren izapideak administrazioen arteko hitzarmenak sinatzeko.

90. gaia. 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Kontratu motak. Kontratazio prozedurak. Kontratazio espedientearen izapidetze motak. Administrazio klausulen eta baldintza teknikoaren agiriak. Obra kontratua. Obra proiektua eta haren edukia. Zerbitzu kontratua. Kontratu publikoen publizitatea.